## ARRASATEKO UDALA

### Gizarte Ongizatea

*Behin betiko onartzea Arrasateko Udalak eskaintzen duen Gizarte Larrialdi egoeretarako zerbitzuaren Udal Araudia.*

Arauzko jendaurreko informazio epea iragan denez batere erreklamazio edo oharpenik hartu gabe, behin betikotzat jo da Udalbatzarrak 2009ko ekainaren 4an hartutako erabakia, Arrasateko Udalaren Araudia, Gizarte Larrialdi egoeretarako zerbitzuari buruzkoa.

Akordio hau bi hilabeteko epean, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunetik hasita, Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazioarekiko Auzietako Salan administrazio auzigaietako errekurtsoa aurkeztu ahal izango da.

Toki jaurbidearen oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 legearen 70.2 artikuluak xedatzen duenaren arabera, onartutako Araudiaren testu osoa argitaratzen da.

Arrasate, 2009ko irailaren 18a.—Ino Galparsoro Markaide, Alkatea.

(4250) (11418)

GIZARTE LARRIALDI EGOERETARAKO ZERBITZUAREN UDAL ARAUDIA

### I. KAPITULUA SARRERA

*1 artikulua. Xedea.*

Araudi honen xedea da larrialdi egoeretarako etxebizitzarako sarbidea arautzea.

*2 artikulua. Zerbitzuaren definizioa.*

Larrialdi Egoeretarako Etxebizitzan, behin behineko harrera egiteko zerbitzua eskainiko da, horretarako Udalak aukeratutako etxebizitzan, etxebizitza ezak nahiz bizikidetzako arazo larriek sortutako egoerei erantzuna emateko.

Zerbitzu honen helburua da, aipatu egoeran dauden pertsonei behin behineko bizitokia ematea eta Gizarte Zerbitzuetatik beharrezko ikusten den kasuetan pertsona hauekin gizarteratze prozesu bat abian jartzea, gizarteratze hitzarmenen bitartez.

Larrialdi Egoeretarako Etxebizitza aldi berean pertsona bat baino gehiagoren arazoei irtenbidea emateko erabil ahal izango da.

Araudi honen ondorioetarako, honako gorabeheren ondorio diren egoerak joko dira etxebizitza ezak nahiz bizikidetzako arazo larriek eragindako egoeratzat.

a) Kalean bizitzea.

b) Pertsonen segurtasun fisiko edo emozionala arriskuan jartzen duen familia gatazka larria gertatzea.

c) Senitartekoren bat etxebizitzatik berehala ateratzea agintzen duten epaia dagoenean.

## AYUNTAMIENTO DE ARRASATE

### Bienestar Social

*Aprobación definitiva del Reglamento Municipal regulador del servicio para situaciones de Emergencia Social que presta el Ayuntamiento de Arrasate.*

Transcurrido el periodo reglamentario de exposición pública sin que se hayan presentado reclamaciones ni observaciones se eleva a definitivo el acuerdo inicial adoptado por el Pleno del Ayuntamiento el 4 de junio de 2009, relativo a la aprobación inicial del Reglamento Municipal regulador del servicio para situaciones de Emergencia Social.

Este acuerdo podrá ser impugnado mediante recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, en el plazo de dos meses contados a partir de la publicación del presente anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, se procede a la publicación del texto íntegro del citado Reglamento.

Arrasate, a 18 de setiembre de 2009.—La Alcaldesa, Ino Galparsoro Markaide.

(4250) (11418)

REGLAMENTO MUNICIPAL DEL SERVICIO PARA SITUACIONES DE EMERGENCIA SOCIAL

### CAPITULO I INTRODUCCIÓN

*Artículo 1. Objeto.*

El presente reglamento tiene por objeto regular el acceso a la vivienda para situaciones de emergencia.

*Artículo 2. Definición del servicio.*

En la vivienda para situaciones de emergencia se prestará un servicio de acogimiento temporal, en la vivienda que el Ayuntamiento destine para tal fin, para dar respuesta a situaciones generadas tanto por la carencia de vivienda como por graves conflictos convivenciales.

Es objeto del presente servicio facilitar un alojamiento temporal a personas que se encuentren en tal situación y la puesta en marcha de un proceso de inserción social con estas personas, a través de los convenios de inclusión social, en los casos que así sean estimados desde los Servicios Sociales.

La vivienda para situaciones de emergencia podrá ser utilizada simultáneamente para dar solución a problemas de distintas personas.

A efectos del presente Reglamento se entenderán como situaciones derivadas tanto por carencia de vivienda como por graves conflictos convivenciales las situaciones derivadas de las siguientes circunstancias:

a) Vivir en la calle.

b) Acontecer un conflicto familiar grave que pone en riesgo la seguridad física o emocional de las personas.

c) Existencia de sentencia judicial que ordene la salida inmediata de la vivienda de algún familiar.

d) Jurisdikzio zibilaren aurrean egindako prozeduretan epai irmoz agindutako kaleratzeak, horien arrazoiak direnean baliabiderik ez izateagatik ez ordaintzea, jabeak etxebizitza behar izatea edo hondamen deklarazioa edo antzekoak jasotzea.

e) Udalak harrera zerbitzua behar duen pertsonaren nahiz pertsonen bizitoki den eraikina hondoa jotzeko zorian dagoela jotzea.

f) Bestelako harrera edo gizarteratze zerbitzuren batean ezarrita dagoen gehienezko epea bete eta eboluzio positiboa izan ondoren bizitza independentea egiteko egokitze epea eta prestakuntza behar duten pertsonak.

Larrialdiko Etxebizitzan ez dira honelako egoerak aintzat hartuko, tratamendu eta zerbitzu espezifikoak behar, dituztelako:

— Gutxitasun psikikoak.

— Droga-mendetasunak.

— Buruko osasun arazoak.

— Ibiltariak.

Droga mendekotasunak edota buruko osasun arazoak dituzten pertsonekin, salbuespenak egingo dira, baldin eta Buru Osasuneko Zentroak eta udaleko Gizarte Zerbitzuek Larrialdi Etxebizitzan sartzea egokia dela ikusten badute.

## II. KAPITULUA
## ONURADUNAK

*3 artikulua. Onuradun zein izan daitekeen zehaztea: Baldintzak.*

a) Arrasaten bizi eta 2 artikuluan adierazitako egoera horietakoren batean dagoen edozein pertsona edo familia izan daiteke Larrialdi Egoeretarako Etxebizitzaren onuradun.

b) Udalerrian erroldatuta dauden pertsonak Larrialdiko Etxebizitzan sartzeko lehentasuna izango badute ere, Udalerrian erroldatu gabeko pertsonak ere Larrialdiko Etxebizitzaren onuradun izan daitezke, baldin eta Arrasaten bizi badira.

c) Aipatu zerbitzua erabiltzeko, interesatuen kreditatu behar izango dute Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzeko beharrezkoa den diru sarrerak gainditzen ez dutela.

*4 artikulua. Onuradunen eskubideak eta betebeharrak.*

4.1. Eskubideak:

a) Larrialdiko Etxebizitzan egoteko eskubidea, eskabidea eragin duen egoera kontuan hartuta, araudi honetan egonaldia amaitzeko adierazitako arrazoiren bat agertzen ez den bitartean.

b) Larrialdiko Etxebizitzan instalazioak eta erabilera komuneko objektuak, ekipamenduak eta tresnak erabiltzeko eskubidea.

c) Norberaren borondatez Larrialdiko Etxebizitzan egoteari uzteko eskubidea.

d) Orientaziorako eskubidea. Pertsona bakoitzaren behar zehatza ebaluatu ondoren bere egoerari gehien egokitzen zaizkion zerbitzu edo prestazioen inguruko orientazioa emango zaio.

e) Larrialdiko Etxebizitzan dagoen bitartean bertan erroldatzeko eskubidea.

d) Desahucios dictados por sentencia judicial firme en procedimientos seguidos ante la jurisdicción civil, por falta de pago por insuficiencia de recursos, por necesidad por parte de la persona propietaria o por declaración de ruina o similares.

e) Declaración municipal de ruina inminente de la edificación que sirva de residencia a la personas o personas necesitadas del servicio de acogimiento.

f) Personas que, habiendo cumplido el tiempo máximo de estancia establecido en algún otro servicio de acogimiento o inserción y habiendo tenido una evolución positiva, necesitan un periodo de adaptación y preparación para llevar una vida independiente.

En la vivienda de emergencia no serán consideradas las situaciones de esta índole, debido a que necesitan tratamientos y servicios específicos:

— Minusvalías psíquicas.

— Drogodependencias.

— Problemas de salud mental.

— Transeúntes.

Se harán excepciones con personas que presenten problemas de drogodependencia o bien problemas de salud mental, en caso de que el Centro de Salud Mental y los Servicios Sociales del Ayuntamiento estimen que su ingreso en la Vivienda de Emergencia es conveniente.

## CAPITULO II
## PERSONAS BENEFICIARIAS

*Artículo 3. Determinación de las personas beneficiarias: Requisitos.*

a) Puede ser beneficiaria de la Vivienda para Situaciones de Emergencia cualquier persona o familia que habite en Arrasate y se encuentre en alguna de las situaciones señaladas en el art. 2.

b) Aunque las personas empadronadas en el municipio tendrán prioridad de acceso a la Vivienda de Emergencia, también las personas no empadronadas en el municipio podrán ser beneficiarias de la Vivienda de Emergencia, siempre que residan en Arrasate.

c) Para utiliza el servicio referido, las personas interesadas deberán acreditar que no cuenten con ingresos económicos superiores a los requeridos para tener derecho a la Renta de Garantía de Ingresos.

*Artículo 4. Derechos y obligaciones de los beneficiarios.*

4.1. Derechos.

a) Derecho a permanecer en la Vivienda de Emergencia, considerándose la situación que ha motivado la solicitud, mientras no se presente alguna razón señalada en este reglamento para finalizar la estancia.

b) Derecho a uso de las instalaciones y objetos, equipamientos y utensilios de uso común en la Vivienda de Emergencia.

c) Derecho de abandono de la Vivienda de Emergencia por propia voluntad.

d) Derecho a ser orientadas. Evaluada la necesidad concreta de cada persona, se le orientará hacia los servicios o prestaciones que resulten más adecuadas a su situación.

e) Derecho a empadronarse en la Vivienda de Emergencia mientras permanezca en ella.

4.2. Betebeharrak:

a) Zerbitzu hauek erabili behar izatera eraman duen egoera aldatzeko egoki jotako gestio administratiboak, judizialak nahiz bestelakoak egitea.

b) Udaleko Gizarte Zerbitzuek gizarteratze prozesu bat hastea komenigarria dela ikusten den kasuetan, erabiltzaileak gizarteratze hitzarmena sinatzea eta bertan hartutako konpromisoak betetzea.

c) Arrasateko Udalak baimendu ez dituen pertsonei Larrialdiko Etxebizitzan sartzen ez uztea, erabiltzailearekin duen ahaidetasuna edo harremana edozein dela ere.

d) Beste pertsona batzuekin bizitzeko bete beharreko jokabide arauak errespetatzea, bizikidetza kaltetu gabe eta gainontzeko erabiltzaileen nahiz bizilagunen sosegua hausten duen ezer egin gabe.

e) Hainbat bizikidetza unitateko pertsonek partekatzen badute zerbitzua, elkarrekin bizitzeko arauak bete beharko dira, garbiketari, higieneari, ordutegiei eta abarri dagokienez. Nork bere seme-alaben ardura hartuko du, baldin baditu, baita bere gelaren ordena eta garbitasunaren ardura eta bere gauza pertsonalen ardura ere. Erabilera komuneko elementuei lotutako etxeko lanei dagokionez (korridorea, atondoa, sukaldea, bainugela) etxe-kideek akordioak hartu eta bete beharko dituzte.

f) Erabiltzaileen arteko gatazka edo desadostasunak izanez gero, Gizarte Zerbitzuetako pertsonalak neurri egokiak hartuko ditu, eta erabiltzaileek erabaki horiek onartu eta bete beharko dituzte.

g) Larrialdiko Etxebizitzan eskuragarri dituzten objektuak, ekipamenduak eta tresnak egokiro eta errespetuz erabiltzea.

h) Baimenik izan gabe ez sartzea Larrialdiko Etxebizitzan ez altzaririk ez etxeko tresnarik.

i) Halaber, Larrialdiko Etxebizitzan ezin izango da animaliarik sartu ez eta higienearen aurkako edota arriskutsua izan daitekeen materialik gorde. Armak edukitzea espresuki debekatua dago.

j) Gizarte Zerbitzuetako pertsonalari edo berak baimendutako beste pertsona batzuei Larrialdiko Etxebizitzan sartzen uzteko betebeharra.

k) Larrialdiko Etxebizitzan irabazizko jarduerarik ez egitea.

l) Gizarte Larrialdiko Etxebizitzaren giltzen kopiarik ez egin eta giltzak inori ez uztea. Egonaldia amaitzean, giltzak Udalaren esku utzi behar dira, erabiltzaileak Larrialdiko Etxebizitza uzten duen egun berean.

m) Larrialdiko Etxebizitzan sartzean, bertan dauden elementu eta ondasunen inbentarioa sinatzeko betebeharra. Egonaldia amaitzen denean, inbentarioa berrikusiko da, eta matxuraren bat izanez gero edo inbentarioan jasotako elementuren bat egongo ez balitz, hori konpondu edo ordezkoa erosteko gastua erabiltzailearen kontura joango da.

n) Gizarte Zerbitzuen departamenduari etxebizitzan dagoen edozein matxura edo konpondu beharreko elementuen berri ematea. Ildo horretan, aldez aurretik baimena eman gabe debekatuta dago aipatutako arazoa konpontzeko esku hartzea. Arazoaren konponbidea premiazkoa izanez gero eta jaiegunean edo udal Gizarte Zerbitzuen ordutegiz kanpo gertatuz gero, Udaltzaingori egoeraren berri emango zaio.

4.2. Obligaciones:

a) Efectuar las oportunas gestiones administrativas, judiciales o de cualquier otro orden necesarias para modificar la situación que ha provocado la necesidad de uso de estos servicios.

b) En los casos que se estime por parte de los Servicios Sociales Municipales la conveniencia de iniciar un proceso de inserción, la suscripción de un convenio de inclusión por parte de la persona usuaria y el cumplimiento de los compromisos adquiridos en el.

c) No permitir el acceso a la Vivienda de Emergencia a personas no autorizadas por el Ayuntamiento de Arrasate, independientemente del tipo de parentesco o relación que tenga con la persona usuaria.

d) Respetar las normas de conducta a cumplirse para residir con otras personas, sin perjudicar la convivencia y sin realizar nada que pueda perturbar el sosiego tanto del resto de personas usuarias como del vecindario.

e) Si el servicio es compartido por personas de varias unidades convivenciales, deberán cumplir las normas de convivencia, respecto la limpieza, higiene, horarios, etc. Cada persona deberá responsabilizarse de sus hijas e hijos, en caso de que los tenga, y asimismo del orden y limpieza de su habitación y de sus objetos personales. Respecto a los trabajos domésticos relacionados con los elementos de uso común (pasillo, vestíbulo, cocina, baño) las personas residentes deberán adoptar acuerdos y cumplirlos.

f) En caso de conflicto o desacuerdo entre las personas beneficiarias, el personal de Servicios Sociales tomará las medidas oportunas, y las personas usuarias deberán aceptar y cumplir tales decisiones.

g) Tratar debidamente y con respeto los objetos, equipamientos y utensilios que tengan a su alcance en la Vivienda de Emergencia.

h) No introducir sin autorización en la Vivienda de Emergencia ni mobiliario ni enseres domésticos.

i) Asimismo, en la Vivienda de Emergencia no podrá introducirse ningún animal, ni almacenar materiales antihigiénicos y/o peligrosos. La tenencia de armas está expresamente prohibida.

j) Permitir el acceso a la Vivienda de Emergencia al personal de Servicios Sociales o a otras personas autorizadas por estos.

k) No desarrollar en la Vivienda de Emergencia actividad lucrativa alguna.

l) No hacer copia de las llaves de la Vivienda de Emergencia Social y no prestárselas a nadie. Al finalizar la estancia se deberán entregar las llaves en el Ayuntamiento, en el mismo día que la persona usuaria abandone la Vivienda de Emergencia.

m) Al acceder a la Vivienda de Emergencia obligación de suscribir el inventario de los elementos y bienes que se encuentren en la misma. Al finalizar la estancia, se comprobará el inventario, y en caso de algún desperfecto o falta de algún bien inventariado, la persona usuaria está obligada a cubrir los gastos de su reparación o compra.

n) Comunicar al departamento de Servicios Sociales cualquier desperfecto o necesidad de reparar algún elemento de la vivienda. En este sentido, está prohibido intervenir para reparar el citado problema sin autorización previa. Cuando la solución del problema sea urgente y se produzca en días festivos o fuera del horario de funcionamiento de los Servicios Sociales Municipales, se deberá comunicar a la Policia Municipal.

## III. KAPITULUA
## BABES ETXEAN SARTZEKO PROZEDURA

*5 artikulua. Ohiko prozedura.*

Interesdunak hala eskatzen duenean hasiko da prozedura. Horretarako, Arrasateko Udaleko organo eskudunari zuzendutako eskaera inprimakia (I. Eranskina) bete eta eskatzaileak edo haren legezko ordezkariak sinatuko du. Inprimakia aurkeztuko da Udaleko Erregistro Orokorrean.

Interesdunak bere eskabidea atzera bota ahal izango du prozesuko edozein unetan, eta horretarako idatzia aurkeztu beharko du. Ondorioz, espedientea artxibatu egingo da.

Gizarte Zerbitzuetako teknikariek bideratu eta baloratuko dute eskabidea. Teknikariek txosten bat egin beharko dute, honako hauek adieraziz:

— Eskatzailearen identifikazio datuak.

— Eskatzailearekin bizi diren gainerako pertsonen identifikazio datuak.

— Eskaera egitera eraman duen egoeraren azalpena.

— Pertsonen egoera ekonomikoa.

— Larrialdiko Etxebizitzan sartzearen egokitasunaren balorazioa.

Txosten hori eta bertan jasotakoa egiaztatzeko beharrezko dokumentu guztiak espedienteari erantsiko zaizkio. Zenbat plaza libre dauden kontuan hartuta eta ondoren azaldutako lehentasun hurrenkerari jarraiki, ebazpen proposamena egingo zaio organo eskudunari.

Etxebizitza erabiltzeko lehentasuna emateko, honako hauek hartuko dira kontuan:

— Egonaldiak irauten duen epean etxebizitza faltari konponbidea ematerik ba ote dagoen edo helburu hori lortzera bideratutako jarduerak martxan jartzerik ba ote dagoen.

— Arrasaten erroldatua egotea.

Plazarik izan ezean, zerbitzua osatzeko edo zabaltzeko, ostatu edo hotel batean behin behineko egonaldia egitea proposatu ahal izango da, baldin eta eskatzailea Arrasaten erroldatua badago.

Azkenik, organo eskudunak ebazpen arrazoitua emango du, Larrialdietarako etxebizitzan sartzeko eskabidea onartuz edo baztertuz.

Eskaera udal erregistroan sartzen denetik, gehienez ere hilabeteko epean emango da ebazpena. Epe hori eten egingo da eskaera zuzentzeko eskatzen denean, jakinarazpena egiten denetik bertan agindutakoa bete arte igarotzen den denboraz edo, bete ezean, emandako epeaz.

Aurreko zatian zehaztutako epea amaitzen denean ebazpenik eman ez bada, eskaera ezeztatua izan dela ulertuko da -betiere ebazpena emateko betebeharrak bere horretan dirauela-, interesatuak aukerako berraztertzeko errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izan dezan.

Nolanahi izanda ere, onuradunak, zerbitzuan sartu aurretik, II. Eranskinean ageri den dokumentuak izenpetu beharko ditu, nahitaez. Eskatzaileak aipatu dokumentuak izenpetu ezean, zerbitzuari uko egin diola ulertuko da.

## CAPITULO III
## PROCEDIMIENTO DE ACCESO A LA VIVIENDA DE EMERGENCIA

*Artículo 5. Procedimiento ordinario.*

El procedimiento se iniciará previa petición de la persona interesada. Para tal fin, la persona solicitante o bien su representante legal cumplimentará y firmará el impreso de solicitud (Anexo I) dirigido al órgano competente del Ayuntamiento de Arrasate. El impreso será presentado en el Registro General del Ayuntamiento.

En cualquier momento del proceso, la persona interesada podrá desistir de su solicitud, en cuyo caso deberá hacerlo por escrito. Este hecho conllevará el archivo del expediente.

La tramitación y valoración de la solicitud serán realizadas por el personal técnico de los Servicios Sociales. El personal técnico elaborará un informe, en el que se determinará lo siguiente:

— Datos de identificación de la persona solicitante.

— Datos de identificación del resto de personas que conviven con la persona solicitante.

— Exposición de la situación que le ha llevado a realizar la solicitud.

— Situación económica de las personas.

— Valoración sobre la conveniencia del ingreso en la Vivienda de Emergencia.

Dicho informe y toda la documentación necesaria para acreditar las circunstancias que en él se señalen, formarán parte del expediente. Considerando la disponibilidad de plazas libres y aplicando el orden de prioridad que a continuación se indica, se elevará la propuesta de resolución ante el órgano competente.

Para dar prioridad en el uso de la vivienda, se tendrán en cuenta las siguientes:

— Que durante el tiempo que dure la estancia se pueda dar solución a la carencia de vivienda o bien poner en marcha intervenciones que puedan lograr dicho objetivo.

— Estar empadronada en Arrasate.

En caso de falta de disponibilidad de plazas, como complemento o ampliación del servicio, se podrá proponer una estancia temporal en un hostal u hotel, siempre y cuando el solicitante esté empadronado en Arrasate.

Finalmente, el órgano competente emitirá resolución motivada, estimando o desestimando la solicitud de acceso a la Vivienda de Emergencia.

La resolución habrá de producirse en el plazo máximo de un meses desde la entrada de la solicitud en el registro municipal. Dicho plazo será interrumpido cuando se requiera la subsanación de las solicitudes por el tiempo que medie entre la notificación y su cumplimiento o, en su defecto, el transcurso del plazo concedido.

Transcurrido el plazo previsto en el apartado anterior sin que se haya adoptado resolución expresa y sin perjuicio de la obligación de resolver, se podrá entender desestimada la solicitud a efectos de permitir al interesado la interposición del recurso potestativo de reposición o contencioso-administrativo.

En todo caso, será imprescindible la suscripción del documento que se contempla en el anexo II por la persona beneficiaria, previamente al acceso al servicio. En el supuesto de que la persona solicitante no suscribiera los citados documentos, se entenderá que renuncia al servicio.

*6 artikulua. Larrialdiko jardunbidea.*

Beharra muturrekoa eta larria denean, Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak eskatzailea Larrialdiko Etxebizitzan berehala sartzea proposatu ahal izango du, behin I eta II. Eranskinetan ageri diren dokumentuak izenpetuta, eskabidea behar bezala bideratu ez bada ere. Hori egin bezain laster, lehen azaldutako jardunbidea abian jarriko da, behin betiko ebazpena emate aldera.

Larrialdiko jardunbideaz sartu ostean, onuradunak uko egiten badio espedientea hasten edo bideratzen laguntzeari, edo, bideratzen ari dela, egiaztatzen bada ebazpenak ezezkoa izan behar duela, hamar egun natural baino lehen zerbitzua utzi beharko duela jakinaraziko zaio. Epea jakinarazpena jasotzen duenetik hasiko da. Agindutakoa bete ezean, nahitaez utzaraziko zaio, 13. artikuluan jasotako moduan.

*7 artikulua. Harreraren iraupena.*

Larrialdiko Etxebizitzan harrera ematea onartuz gero, organo eskudunak hartzen duen erabakian harreraren iraupena zehaztu beharko da. Kasuaren ezaugarriak eta harreraren beharra eragin duen egoera konpontzeko dauden aukerak kontuan hartuko dira iraupena erabakitzeko. Nolanahi izanda ere, zerbitzuak ez du sei hilabete baino gehiago iraungo, erabiltzailea etxebizitzan erroldatzen den egunetik.

## IV. KAPITULUA
## ETXEBIZITZA ETA ERABILTZAILEEN JARRAIPENERAKO ZERBITZUA

Udalak Larrialdiko Etxebizitzaren jarraipena egiteko eta erabiltzaileekin Gizarte Zerbitzuek adostutako hainbat gai lantzeko Gizarte Heziketa zerbitzua eskainiko du. Honako hauek izango zerbitzu honen egitekoak:

*8 artikulua. Etxebizitzaren jarraipena.*

— Larrialdiko Etxebizitzan dauden elementu eta ondasunen jarraipena egin. Matxuraren bat izanez gero edo inbentarioan jasotako elementuren bat egongo ez balitz Udalari horren berri eman.

— Erabilera komuneko elementuei lotutako etxeko lanei dagokionean (korridorea, atondoa, sukaldea, bainugela) etxekideekin lan banaketa adostu eta honen jarraipena egin.

— Larrialdiko etxebizitzan erabiltzaileren bat dagoen bitartean, etxebizitzaren jarraipena egin, Gizarte Zerbitzuek zehaztuko duten maiztasunez eta iraupenez.

*9 artikulua. Erabiltzaileen jarraipena.*

— Erabiltzaileek betebeharreko arauen bat hautsiz gero, horren berri Udal Gizarte Zerbitzuei eman.

— Gizarte Zerbitzuek beharrezko ikusten duten erabiltzaileekin, hainbat arlo landu, erabiltzaileek arlo ezberdinetan autonomia maila handiagoa lortu dezaten. Udalak eta erabiltzaileak sinatutako gizarteratze hitzarmenean zehaztuko dira erabiltzaileekin landu beharreko gaiak.

— Gizarte Heziketa zerbitzuaren bitartez erabiltzaileekin honako gaiak landu ahal izango dira:

*Artículo 6. Procedimiento de urgencia.*

Cuando la necesidad sea extrema y grave, la dirección de Bienestar Social podrá proponer el ingreso inmediato de la persona solicitante en la Vivienda de Emergencia, tras la suscripción de los documentos contemplados en los anexos I y II, aunque la solicitud no haya sido tramitada debidamente. Tan pronto sean suscritos los documentos, se pondrá en marcha el procedimiento señalado anteriormente, con el objeto de dictarse la resolución definitiva.

Tras ingresar por medio del procedimiento de urgencia, en caso de que la persona beneficiaria se negara a colaborar en el inicio o tramite del expediente o que, durante este, se comprobara que la resolución debe ser negativa, se le notificará que deberá abandonar el servicio antes de diez días naturales. El plazo se iniciará desde la fecha en que reciba la notificación. En caso de incumplimiento de lo ordenado, se procederá al desalojo forzoso tal y como se establece en el artículo 13.

*Artículo 7. Duración del acogimiento.*

En caso de aprobarse el acogimiento en la Vivienda de Emergencia, en la resolución del órgano competente deberá figurar la duración del acogimiento. Para la resolución de la duración se tendrán en cuenta las características del caso y las posibilidades de solucionar la situación que ha provocado la necesidad del acogimiento. En cualquier caso, la duración máxima del servicio no será superior a seis meses a partir de la fecha de empadronamiento de la persona usuaria en la vivienda.

## CAPITULO IV
## SERVICIO PARA EL SEGUIMIENTO DE LA VIVIENDA Y DE LAS PERSONAS USUARIAS

El Ayuntamiento ofrecerá un servicio de educación social para el seguimiento de la Vivienda de Emergencia y para desarrollar diversos temas acordados con las personas usuarias por parte de los Servicios Sociales. Las funciones de este servicio serán las siguientes:

*Artículo 8. Seguimiento de la vivienda.*

— Realizar el seguimiento de los elementos y bienes existentes en la Vivienda de Emergencia. En caso de alguna avería o bien desaparición de algún elemento recogido en el inventario, comunicar al Ayuntamiento.

— Respecto a las labores domésticas relacionadas con los elementos de uso común (pasillo, vestíbulo, cocina, baño,) acordar el reparto de tareas con los miembros de la vivienda y realizar el oportuno seguimiento.

— Mientras haya alguna persona usuaria en la vivienda de Emergencia, realizar el seguimiento de la vivienda, con la frecuencia y duración que concreten los Servicios Sociales.

*Artículo 9. Seguimiento de las personas usuarias.*

— En caso de que las personas usuarias infrinjan alguna norma que deban cumplir, dar cuenta de ello a los Servicios Sociales Municipales.

— Realizar intervenciones en diversas áreas con aquellas personas usuarias que los Servicios Sociales consideren que es necesario, con el objeto de que estas personas puedan lograr un mayor nivel de autonomía en diferentes campos. Los temas a desarrollarse con las personas usuarias serán concretados en un convenio de inclusión que será suscrito entre el Ayuntamiento y la persona usuaria.

— A través del servicio de educación social se podrán trabajar los siguientes temas con las personas usuarias:

— Etxebizitza independente batean bizitza autonomoa garatu ahal izateko gaitzea.

— Higiene eta osasun ohiturak sustatzea.

— Eguneroko bizitzan erantzukizuna sortzea.

— Pertsonaren jarrera, ohiturak, gaitasunak eta trebetasunak hobetzea.

— Seme-alaben heziketa prozesuan gurasoei orientazioa ematea.

— Instituzio eta Erakunde ezberdinekin dituzten harremanak hobetzea.

— Formazioa eta lan arloa.

— Etxebizitza bilatzeko prestatzea eta bide horretan laguntzea.

— Udala eta Gizarte heziketa Zerbitzuaren artean adostutako beste edozein gai.

— Gizarte Zerbitzuek zehaztuko dute Gizarte Heziketa Zerbitzuak erabiltzaile bakoitzarekin zein maiztasunez eta zein iraupenez landu behar dituen zehaztutako gaiak.

## V. KAPITULUA
## ZERBITZUA ERABILTZEAK DAKARTZAN GASTUAK

*10 artikulua. Zerbitzua erabiltzeak dakartzan gastuak.*

Komunitate gastuak eta etxebizitza konpondu edo hobetzekoak Udalaren kontura izango dira. Eraikina eduki eta erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasa nahiz zerga guztiak ere Udalak ordainduko ditu, zaborrak biltzeagatiko tasa barne.Udalaren kontura izango dira, baita ere, argi indar, gas eta ur gastuak.

Dena dela, Udalak, egoki jotako neurriak hartu ahal izango ditu erabiltzaileek hornigai horiek neurriz gain kontsumitu ez ditzaten edo, jada kontsumitu badituzte, eragindako kalteei konponbidea emateko.

## VI. KAPITULUA
## ZERBITZUA ETETEA ETA IRAUNGITZEA

*11 artikulua. Zerbitzua aldi baterako etetea.*

Espedientea bideratu eta gero, eta Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak hala proposatuta, zerbitzua aldi batez eten ahal izango da, organo eskudunak emandako ebazpena dela medio, aldez aurretik interesatuari entzunaldia eskainita. Onuradunari, eta, hala dagokionean, zerbitzua ematen duen erakundeari emango zaio ebazpenaren berri.

Zerbitzua honako arrazoi hauengatik eten ahal izango da:

a) Bizikidetza eta elkarrekiko errespetu-arauak haustea.

b) Larrialdiko Etxebizitzako edo auzokide-komunitateko instalazioak eta bitartekoak oker erabiltzea.

c) Bi edo hiru egunetako epean zerbitzua ez erabiltzea, ezinbesteko arrazoi batzuk egiaztatu gabe.

Behin ebazpenak agindutako etenaldia amaituta, zerbitzuaren erabiltzailea Larrialdiko Etxebizitzan sartu ahal izango da berriro.

*12 artikulua. Zerbitzua iraungitzea.*

Zerbitzua ondorengo arrazoiengatik iraungitzat joko da:

— Aurreikusita zegoen epea amaitzea.

— Erabiltzaileak uko egitea.

— Heriotza.

— Capacitarles para que puedan desarrollar una vida autónoma en una vivienda independiente.

— Promoción de hábitos de higiene y salud.

— Generar responsabilidad en la vida diaria.

— Mejora de la actitud, hábitos, capacidades y destrezas de la persona.

— Dar orientación a las madres y padres en el proceso educativo de sus hijas e hijos.

— Mejora de las relaciones que tienen con las diferentes instituciones y organismos.

— Formación y ámbito laboral.

— Formación en la búsqueda de vivienda y colaborar en tal cometido.

— Cualquier tema acordado entre el Ayuntamiento y el servicio de educación social.

— Los Servicios Sociales concretarán la frecuencia y duración de los temas a desarrollar por el servicio de Educación Social con cada persona usuaria.

## CAPITULO V
## GASTOS GENERADOS DEL USO DEL SERVICIO

*Artículo 10. Gastos generados del uso del servicio.*

Los gastos de comunidad y de reparación o mejora de la vivienda correrán a cuenta del Ayuntamiento. Las tasas y todos los impuestos a abonar por uso y posesión del edificio serán satisfechos por el Ayuntamiento, incluida la tasa por recogida de basuras. Así mismo, correrán a cuenta del Ayuntamiento los gastos de energía eléctrica, gas y agua.

No obstante, el Ayuntamiento podrá adoptar las medidas que considere oportunas para que las personas usuarias no puedan consumir estos suministros de forma abusiva o bien, si ya los han consumido, para dar solución a los daños ocasionados.

## CAPITULO VI
## SUSPENSION Y EXTINCIÓN DEL SERVICIO

*Artículo 11. Suspensión temporal del servicio.*

Tras la instrucción del expediente oportuno y a propuesta de la dirección de Bienestar Social, se podrá determinar la suspensión temporal del servicio, mediante resolución del órgano competente, previa audiencia de la persona interesada. Dicha resolución será notificada a la persona beneficiaria y a la entidad prestataria del servicio.

El servicio se suspenderá por los siguientes motivos:

a) Infringir las normas de respeto mutuo y normas convivenciales.

b) Hacer un uso indebido de las instalaciones y recursos de la Vivienda de Emergencia o de la comunidad de vecinos.

c) No hacer uso del servicio durante más de dos o tres días, sin justificación de unos motivos de fuerza mayor.

Finalizado el periodo de suspensión ordenado por la resolución, la persona usuaria del servicio podrá acceder de nuevo a la Vivienda de Emergencia.

*Artículo 12. Extinción del servicio.*

El servicio se extinguirá por los siguientes motivos:

— Finalización del plazo previsto.

— Renuncia de la persona usuaria.

— Fallecimiento.

Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak hala proposatuta, zerbitzua iraungitzat jo ahal izango da horretarako aurreikusita zegoen eguna baino lehen, organo eskudunak emandako ebazpena dela medio eta aldez aurretik interesatuari entzunaldia eskainita, honako arrazoi hauengatik:

— Zerbitzua ematea eragin zuen beharra desagertzea.

— Zerbitzua emateko kontuan hartu diren datuak direla-eta zerbait ezkutatzea edo datu faltsuak ematea.

— Gizarte Zerbitzuetako langileei edo horiek baimendutako pertsonei sartzen ez uztea.

— Beste erabiltzaileei edo langileei fisikoki edo psikologikoki erasotzea.

— Araudi honetan erabiltzaileei ezartzen zaizkien betebeharrak ez betetzea.

— Udaletik dirulaguntzaren bat jasotzen egon eta kalean eskean aritzea.

— Hiru egun baino gehiagoz zerbitzua ez erabiltzea, ezinbesteko arrazoi batzuk egiaztatu gabe.

— Motiborik adierazi gabe alde egitea.

Zerbitzuaren amaiera aginduta, erabiltzaileak Larrialdiko etxebizitza utzi egin beharko du ebazpenak agindutako epean.

## VII. KAPITULUA
## ADMINISTRAZIO UTZARAZPENA

*13 artikulua. Administrazio utzarazpena.*

Araudi honetan jasotako arrazoietakoren bategatik nahiz epea amaitu delako, larrialdiko etxebizitza utzi behar dutenek uko egiten badiote uzteari, Udalak behartu ahal izango ditu, administrazio utzarazpenaren bitartez Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudiko 120. artikuluan eta hurrengoetan edo hura ordezkatzen duten arauetan jardunbideko prozeduraren bidez.

Propuesto por la dirección de Bienestar Social, se podrá determinar la extinción del servicio antes de la fecha prevista para ello mediante la oportuna resolución, previa audiencia de la persona interesada, por los siguiente motivos:

— Desaparición de la causa de necesidad que generó la prestación del servicio.

— Ocultamiento o falsedad en los datos que hayan sido tenidos en cuenta para la concesión del servicio.

— Por no permitir el acceso al personal de Servicios Sociales u otras personas autorizadas por estos.

— Por agresión física o psicológica a otras personas usuarias o personal del mismo.

— Por incumplimiento de las obligaciones establecidas en el presente Reglamento para las personas usuarias.

— Por mendigar en la calle percibiendo alguna ayuda económica del Ayuntamiento.

— No hacer uso del servicio durante más de tres días, sin justificación de unos motivos de fuerza mayor.

— Abandonar la vivienda sin señalar ningún motivo.

Ordenada la finalización del servicio, la persona usuaria deberá abandonar la vivienda de Emergencia dentro del plazo de la orden dictada por resolución.

## CAPITULO VII
## DESAHUCIO ADMINISTRATIVO

*Artículo 13. Desahucio administrativo.*

En caso de que, por alguno de los motivos contemplados en este Reglamento o por finalización del plazo concedido, las personas que deban abandonar la vivienda de emergencia se negaran a hacerlo, podrán ser obligadas por el Ayuntamiento, mediante desahucio administrativo siguiendo los trámites procedimentales previstos en los artículos 120 y siguientes del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales o normativa que le sustituya.